# Aurretiazko genero eraginaren txostena

# Informe de evaluación previa de impacto de genero

## Ondarearen gaineko Zergaren foru arau aurreproiektua

## Anteproyecto de Norma Foral del Impuesto sobre el Patrimonio.

### 1. Sarrera

Txosten honen helburua da 2/2015 Foru Arauak, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, bere 27. artikuluan ezartzen duena betetzea. Hain zuzen ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren foru arauen aurreproiektuak zein izaera orokorreko xedapen proiektuak osatu eta izapidetzeko orduan, generoaren eraginaren aldez aurreko ebaluazioa aurkeztu beharko da haiei atxikita.

Genero eraginaren aldez aurretiko ebaluazio txostenak atal hauek eduki beharko ditu:

### 1. Introducción

Este informe tiene como objetivo dar cumplimiento a lo establecido el artículo 27 de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres. Según el mismo, los anteproyectos de Norma Foral y los proyectos de disposiciones de carácter general de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en su proceso de elaboración y tramitación, se acompañarán del correspondiente informe de evaluación previa de impacto de género.

Ese informe de evaluación previa del impacto en función del género deberá de constar de las siguientes partes:

- arau proiektuaren edo izaera orokorreko xedapenaren deskribapen orokorra.

- genero eraginaren aldez aurreko ebaluazioa.

- atzemandako ezberdintasunak ezabatzeko neurriak, baita, egindako genero eraginaren ebaluazioaren arabera, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko neurriak ere.

- la descripción general del proyecto de norma o de disposición de carácter general.

- la evaluación previa del impacto en función del género.

- las medidas para eliminar las desigualdades identificadas y promover la igualdad de mujeres y hombres en función de la evaluación de impacto de género realizada.

## 2. Arau aldaketak

Aurreproiektu honetan proposatutako arau aldaketa aipagarrienak hauek dira:

- Salbuetsita geratzen dira atzerrian kokatuta dauden ondasun eta eskubideak, haien titularrak diren zergadunek langile lekualdatuentzat ezartzen den araubide berezia aukeratu dutenean; zergadunaren ezkontideari edo izatezko bikote-lagunari ere aplikagarri zaio salbuespena, kasua bada

## 2. Modificaciones normativas

Las modificaciones normativas más relevantes planteadas en este anteproyecto son:

- Declarar exentos los bienes y derechos situados en el extranjero, titularidad de las personas contribuyentes que hayan optado por el régimen especial de las personas trabajadoras desplazadas, y, en su caso, de sus cónyuges o parejas de hecho.

- Salbuetsita geratzen dira entitateen kapitalean partaidetzak, zergadunak bere zerbitzuak ematen dizkionean entitate horri, bai zerbitzuongatik jasotzen dituen ordainsariak lan etekintzat hartzen direnena, eta baita jarduera ekonomikoen etekintzat hartzen direnean ere.

- Declarar exentas las participaciones en el capital de entidades, aplicable para las personas contribuyentes que presten sus servicios a dicha entidad, tanto cuando la remuneración de los mismos tenga la consideración de rendimientos del trabajo, como cuando la tenga de rendimientos de actividades económicas.

- Berriro ezartzen da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarekin batera ondarearen gaineko zergak lehendik ere Gipuzkoan izan duen baterako muga, gaur egun beste lurralde historikoetan, Nafarroan eta lurralde erkidean indarrean dagoena.Araban eta Bizkaian bezala, muga hori aplikatzen da ondarearen gaineko zergaren eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kuota osoen batura azken zerga horren zerga oinarriaren %60 baino handiagoa denean, eta, beraz, printzipioz, ondarearen gaineko zergaren kuota osoa murriztuko da muga

- Se reincorpora el límite de tributación conjunto con el impuesto sobre la renta de las personas físicas, que ya se establecía en los impuestos sobre el patrimonio que se encontraron vigentes con anterioridad en Gipuzkoa y que actualmente se encuentra en vigor en el resto de Territorios Históricos, en Navarra y en territorio común. Al igual que en los Territorios Históricos de Álava y Bizkaia, el límite opera cuando la suma de las cuotas íntegras del impuesto sobre el patrimonio y del impuesto sobre la renta de las personas físicas exceda del 65% de la base imponible de este

horretara iritsi arte.Orobat, gutxieneko kopuru bat ezartzen da, %25, ondarearen gaineko zergagatik kasu guztietan ordaindu beharko dena.

último impuesto, de manera que, en principio, la cuota íntegra del impuesto sobre el patrimonio se reducirá hasta alcanzar dicho límite. Igualmente, se establece una cantidad mínima que deberá pagarse por el impuesto sobre el patrimonio en todo caso, que será del 25%.

- Aldaketak sartu dira zergaren eskalan, aberastasunaren eta fortuna handien gaineko zergan ezarritakoaren aldean, progresiboagoa egiteko. Horrela, tarifa berriak zortzi tarte ditu, indargabetutako zergan baino hiru gehiago, eta zerga tasak progresiboagoak eta altuagoak dira.

- Se modifica la escala del impuesto respecto a la que se establecía en el Impuesto sobre la Riqueza y las Grandes Fortunas, dotándola de una mayor progresividad. Así, la nueva tarifa se compone de ocho tramos, tres más que los que componían la escala del impuesto derogado, y los tipos impositivos aplicables pasan a ser más progresivos y altos.

Indarrean dagoena / en vigor

| Oinarri likidagarria / Base liquidable | Kuota osoa / Cuota íntegra | Gainerakoa / Resto | Tasa / Tipo % |
|---|---|---|---|
| 0 | 0 | 500.000 | 0,25% |
| 500.000 | 1.250 | 1.000.000 | 0,60% |
| 1.500.000 | 7.250 | 1.600.000 | 1,00% |
| 3.100.000 | 23.250 | 3.200.000 | 1,30% |
| 6.300.000 | 64.850 | gora/ adelante | 1,50% |

eurotan / euros

Proposamena / Propuesta

| Oinarri likidagarria / Base liquidable | Kuota osoa / Cuota íntegra | Gainerakoa / Resto | Tasa / Tipo % |
|---|---|---|---|
| 0 | 0 | 200.000 | 0,20 |
| 200.000 | 400 | 200.000 | 0,30 |
| 400.000 | 1.000 | 400.000 | 0,50 |
| 800.000 | 3.000 | 800.000 | 0,90 |
| 1.600. 000 | 10.200 | 1.600.000 | 1,30 |
| 3.200. 000 | 31.000 | 3.200. 000 | 1,70 |
| 6.400. 000 | 85.400 | 6.400. 000 | 2,10 |
| 12.800. 000 | 219.800 | gora/ adelante | 2,50 |

eurotan / euros

## 3. Genero eragina

### 3.1 Genero egokitasuna

Foru Arau aurreproiektu honen xedea da Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatuko den ondarearen gaineko zerga berria onartzea, eta zerga hori beste lurralde historikoetan ondare metaketa kargatzen duten zergekin parekagarria izatea. Alde horretatik, zerga berria oso hurbil dago, bai egituran eta bai edukietan, beste lurralde historikoetan indarrean dagoen zergatik.

Proiektuaren amaierako hartzaileak Ondarearen gaineko Zergarengatik tributatzeko obligazioa duten pertsona fisikoak dira. Nahiz eta, lehen aipatu den bezala, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legeak oinordetzen araubidean sartu dituen berritasunei erantzuteko, zergaren aplikazio eremu subjektiboa zabaldu da, haren barruan testamentu-ahalordea erabili gabe duten herentzien ondare garbiak ere sartuz. Horren ondorioz, pertsona fisikoak ez ezik beste

## 3. Impacto de género

### 1.1 Pertinencia de género

Este Anteproyecto de Norma Foral tiene por objeto el nuevo Impuesto sobre el Patrimonio que será de aplicación en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, equiparable a los impuestos que gravan la acumulación de patrimonio en el resto de Territorios Históricos. En este sentido, el nuevo impuesto se aproxima, tanto estructuralmente como a nivel de contenidos, al vigente en los otros Territorios Históricos.

Las personas destinatarias finales del proyecto son las personas físicas con obligación de tributar por el Impuesto sobre el Patrimonio. Aunque, como ya se ha comentado y para dar respuesta a las novedades en el régimen sucesorio introducidas por la Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco, el ámbito subjetivo de aplicación del impuesto se ha ampliado, al incluirse en el mismo también los patrimonios netos de las herencias que se hallen pendientes del ejercicio de un poder

zergadun batzuk ere egon daiteke zergari lotuta.

testatorio. De esta manera, contribuyentes distintos de las personas físicas podrán estar sometidos al impuesto.

Hortaz, kontuan izanik:

- amaierako talde hartzailea orokorrean pertsona fisikoak direla.
- xedapen normatiboak eragina duela emakumeek eta gizonek baliabideak eskuratzeko edota kontrolatzeko moduan.

Ondorioztatu behar da egokia dela arau proiektua genero ikuspegitik aztertzea.

Por tanto, y teniendo en cuenta que:

- el grupo destinatario final, con carácter general son las personas físicas.
- el proyecto normativo afecta al acceso y/o control de los recursos por parte de las mujeres y los hombres.

Se determina que es pertinente el análisis de género del proyecto normativo.

## 3.2. Genero eraginaren balorazioa

### 3.2.1. Hasierako egoera

EUSTATek egiten duen "Errenta pertsonal eta familiarra"-ren datuen arabera, 2014an Gipuzkoako emakumeen batez besteko errenta

## 3.2 Valoración del impacto de género

### 3.2.1 Situación inicial

Según los datos de la "Renta personal y familiar" que elabora el EUSTAT, en 2014 la renta media de las mujeres en Gipuzkoa fue de 15.249 euros y la de

15.249 eurokoa izan zen, eta gizonezkoena, berriz, 24.802 eurokoa (%38,5eko arraila). Laneko errentetan aldea edo desberdintasuna %40,5ekoa da (8.975 euro eta 15.090 euro, hurrenez hurren, emakumeen enplegua eskuratzeko aukera murritzagoak eta lan diskriminazioa direla medio). Gipuzkoan emakumeen %25,2ak 1.500 eurotik behera jasotzen ditu, eta gizonezkoetan talde hori % 14,4koa da. Emakumeen erdia baino gehiagok (%52,6) urtean 12.000 eurotik behera jasotzen dituen taldean kontzentratzen da, sarrera horiek dituzten gizonezkoak %29,6 diren bitartean.

los hombres de 24.802 euros (brecha del 38,5%). En las rentas procedentes del trabajo la diferencia es del 40,5% (8.975 euros frente a 15.090, dado el menor acceso al empleo y la discriminación laboral). El 25,2% de las mujeres de Gipuzkoa percibía unos ingresos inferiores a 1.500 euros al año, frente al 14,4% de los hombres. Más de la mitad (52,6%) de las mujeres se concentra en ingresos inferiores a 12.000 euros anuales frente al 29,6% de los hombres.

Lan merkatuari dagokionez, nahiz eta gizonezkoen langabezia zifrak gora egitearen ondorioz langabeziako tasetan genero arraila murriztu egin den, krisi ekonomikoaren eraginez langabeziak gehiago erasaten die oraindik ere emakumeei gizonezkoei baino. Horrela, eta EUSTATen Biztanleria Jardueraren Araberako datuetan ikusten da 2017ko lehen seihilabetekoan emakumeen (16-64 urte) okupazio tasa %63,8koa izan zela

En lo referente al mercado de trabajo, a pesar de que la brecha de género en las tasas de paro se ha reducido como resultado del aumento del desempleo en los hombres, a consecuencia de la crisis económica, el paro sigue afectando más a las mujeres que a los hombres. Así, y según los datos de la Población en Relación con la Actividad de EUSTAT, en el primer semestre de 2017 la tasa de ocupación de las mujeres

Gipuzkoan, gizonezkoena %70,1ekoa izan zen bitartean. Eta langabezia egoeran dagoen biztanleriari dagokionez, emakumeen langabezia tasa 2017ko lehen seihilabetekoan %10,2koa izan zen, gizonena %7,9a izan zen bitartean.

(16-64 años) en Gipuzkoa fue del 63,8% frente al 70,1% de los hombres. Respecto a la población en situación de desempleo, la tasa de paro de las mujeres en el primer semestre de 2017 fue del 10,2% frente al 7,9% de los hombres.

Era berean, emakumeak dira nagusi Diru-sarrerak Bermatzeko Errentan (SBE) titularrak direnen artean. Horrela, eta Lanbideko 2017ko iraileko datuen arabera, SBEa jasotzen duten pertsonen %56,9 emakumeak dira Gipuzkoan.

Del mismo modo, las mujeres son mayoría en el colectivo de personas titulares de la Renta de Garantía de Ingresos (RGI). Así, y según los datos de Lanbide, en septiembre de 2017 el 56,9% de las personas receptoras de la RGI en Gipuzkoa son mujeres.

Nabarmentzeko modukoa da pobrezia indizeak handiagoak direla emakumea pertsona nagusia den etxeetan. Horrela, “Gipuzkoako pobreziaren eta bazterkeriaren inkesta, 2014” argitalpenaren arabera, pobrezia eta prekaritatea tradizioz arriskukoak diren taldeetan pilatzen dira gero eta gehiago. Bide horretatik, pobrezia modu desberdinek sexuaren arabera duten intzidentziaren konparaziozko azterketak egoera okerragoa erakusten du kasu guztietan emakumeak buru dituzten etxeetan.

Cabe destacar, que los índices de pobreza son superiores en los hogares cuya persona principal es una mujer. Según la “Encuesta de pobreza y exclusión social de Gipuzkoa 2014” la pobreza y la precariedad se concentran cada vez más en los grupos tradicionalmente de riesgo. Así, el análisis de la incidencia de las distintas formas de pobreza en función del sexo revela en todos los casos la peor situación comparada de los hogares encabezados por mujeres. Así, la tasa de pobreza persistente es particularmente

Horrela, pobrezia iraunkorraren maila bereziki altua da emakumezkoak daramatzaten etxeetan bizi direnen kasuan (%12,8), gizonezkoen daramatzaten %7,8ren aldean.

elevada entre las personas que viven en hogares encabezados por mujeres (12,8%), frente al 7,8% en hogares encabezados por hombres.

Pobrezia eta bazterketa arriskua neurtzen duen AROPE tasaren arabera (diru-sarrera apalak, eskasia material larria eta lan intentsitate apala) emakumezkoen %21,5a dago egoera horietako bat jota egoteko arriskuan, gizonezkoen %17,5aren aldean. Eta emakumezkoak buru dituzten etxeetan, bertan bizi diren %29,4k dute arrisku hori, gizonezkoak buru direnean portzentaje hori %16,6ra jaisten den bitartean.

Según la tasa AROPE de riesgo de pobreza y exclusión social (bajos ingresos, privación material severa y baja intensidad laboral) el 21,5% de las mujeres está en situación de sufrir al menos una de esas situaciones, frente al 17,5% de los hombres. Y cuando la persona principal del hogar es una mujer, el 29,4% de los integrantes del hogar pueden estar en esa situación, mientras que si la persona principal es un hombre le porcentaje baja al 16,6%.

2016ko Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zergaren datu nagusiak aztertuta, ikusten da emakumezkoek gizonezkoek baino presentzia handiagoa dutela:

- Aitorpen kopuruan, emakumezkoak %52,6 dira.
- Oinarri likidagarrian %50,7.
- Ordaintzeko kuotan, zenbateko osoaren %49,7 hartzen dute.

El análisis de los principales datos del Impuesto sobre la Riqueza y las Grande Fortunas de 2016 muestra que las mujeres tienen mayor presencia que los hombres:

- En el número de declaraciones, las mujeres representan el 52,6%.
- En la base liquidable el 50,7%.
- En la cuota a ingresar, representan el 49,7% del importe total.

**ABERASTASUNAREN ETA FORTUNA HANDIEN GAINEKO ZERGA- 2016-**

**IMPUESTO SOBRE LA RIQUEZA Y LAS GRANDES FORTUNAS**

| Sexua / Sexo | Aitorpen kopurua / Nº declaraciones | | Oinarri likidagarria / Base liquidable | | Ordaintzeko kuota / Cuota a ingresar | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | Guztira / Total | % |
| Emakumezkoak / Mujeres | 3.963 | 52,6 | 4.384.301.941 | 50,7 | 31.999.837 | 49,7 |
| Gizonezkoak / Hombres | 3.575 | 47,4 | 4.266.098.709 | 49,3 | 32.381.517 | 50,3 |
| **GUZTIRA / TOTAL** | **7.538** | **100,0** | **8.650.400.650** | **100,0** | **64.381.354** | **100,0** |

Zenbatekoak eurotan / Importes en euros

Baina bataz besteko zenbatekoak aztertzen badira, ikusten da emakumezkoek gizonezkoek baino zenbateko txikiagoak aurkezten dituztela.

- Emakumezkoek aitortutako bataz besteko oinarri likidagarria 1,1 milioi eurotako da, eta gizonezkoena, berriz, 1,2 milioi eurokoa.

- Ordaintzeko bataz besteko kuota 8.075 eurokoa da emakumeetan, eta 9.058 euro gizonezkoetan.

Pero si se analizan los importes medios, se observa que las mujeres presentan unas cuantías inferiores a los hombres.

- La base liquidable media declarada por las mujeres es de 1,1 millones de euros, frente a 1,2 millones de euros de los hombres.

- La cuota a ingresar media de las mujeres es de 8.075 euros frente a los 9.058 euros de los hombres.

**ABERASTASUNAREN ETA FORTUNA HANDIEN GAINEKO ZERGA -2016- IMPUESTO SOBRE LA RIQUEZA Y LAS GRANDES FORTUNAS**

| Sexua / Sexo | Oinarri likidagarria / Base liquidable | Ordaintzeko kuota / Cuota a ingresar |
|---|---|---|
| | Bataz bestekoa / Promedio | |
| Emakumezkoak / Mujeres | 1.106.309 | 8.075 |
| Gizonezkoak / Hombres | 1.193.314 | 9.058 |
| **GUZTIRA / TOTAL** | **1.147.572** | **8.541** |

Zenbatekoak eurotan / Importes en euros

### 3.2.2 Proposatutako neurrien eragina

Generoaren ikuspegitik aintzat hartzeko moduko neurrien artean, hauek aipatu daitezke:

**1. Zergaren tarifa**

400.000 euro baino txikiagoko oinarri likidagarrientzat proposatutako tarifak kuota osoa txikiagoa ekartzen du; 816.000 euro baino handiagoko oinarri likidagarrientzat proposatutako tarifak kuota osoa handiagoa ekartzen du; 400.000 eta 816.000 euro bitarteko oinarri likidagarrientzat, berriz, kuota osoa handiagoa edo txikiagoa izan daiteke.

Proposatutako tarifak izango duen eragina aurreikusteko, oinarri gisa 2016ko ekitaldiko Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zergako datuak erabili dira (2017an egindako aitorpena).

### 3.2.2 Efectos de las modificaciones propuestas

Entre las medidas a considerar desde el punto de vista de género, caben destacar las siguientes:

**1. Tarifa del impuesto**

Para bases liquidables inferiores a 400.000 euros la tarifa propuesta supone una cuota íntegra menor; para bases liquidables superiores a 816.000 euros la nueva tarifa propuesta supone una cuota íntegra mayor; mientras que para bases liquidables entre 400.000 y 816.000 euros la nueva cuota íntegra puede ser mayor o menor.

Para la estimación del impacto de la nueva tarifa se han utilizado los datos de las declaraciones del Impuesto sobre la Riqueza y las Grandes Fortunas de 2016 (presentadas en 2017).

Tarifa berriarekin kuota osoa guztira 20,1 milioi eurotan handitzen da (+%31,2). Emakumezkoentzat igoera 9,9 milioi eurotakoa da (+%30,9) eta gizonezkoentzat 10,2 milioi eurotakoa (+%31,5).

Con la nueva tarifa la cuota íntegra total aumenta en 20,1 millones de euros (+31,2%). Para las mujeres el aumento es de 9,9 millones de euros (+30,9%) y para los hombres de 10,2 millones de euros (+31,5%)

**Proposatutako tarifaren eragina, guztira / Impacto total de la tarifa propuesta**

| | Kopurua Número | | Kuota osoa originala Cuota íntegra original | | Kuota osoa berria Nueva cuota íntegra | | Aldea Diferencia | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Emakumezkoak / Mujeres | 3.963 | 52,6% | 31.999.837 | 49,7% | 41.898.633 | 49,6% | 9.898.796 | 49,2% |
| Gizonezkoak / Hombres | 3.575 | 47,4% | 32.381.517 | 50,3% | 42.588.886 | 50,4% | 10.207.369 | 50,8% |
| **Guztira / Total** | **7.538** | **100,0%** | **64.381.354** | **100,0%** | **84.487.519** | **100,0%** | **20.106.165** | **100,0%** |

Zenbatekoak eurotan / Importe en euros

Guztira 7.538 aitortzaile daude, eta horietatik %56,6ri kuota osoa handitu egiten zaie tarifa berriarekin, eta %41,2ri kuota osoa jaitsi egiten zaie; eta 169 aitorpen daude kuota osoa nulua dutenak 2016an eta tarifa berriak ez die eraginik egiten.

Del total de 7.538 personas declarantes, al 56,6% la nueva tarifa le supone un aumento de la cuota íntegra, y al 41,2% una disminución de la cuota íntegra; y hay 169 declaraciones con cuota íntegra nula en 2016 que no se ven afectadas por la nueva tarifa.

**Tarifa berriaren eragina – aitorpen kopurua / Efecto de la nueva tarifa – número de declaraciones**

| Kuota osoa / Cuota íntegra | Guztira Total | | Emakumezkoak Mujeres | | Gizonezkoak Hombres | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Handiagoa / Mayor | 4.266 | 56,6 | 2.228 | 56,2 | 2.038 | 57,0 |
| Txikiagoa / Menor | 3.103 | 41,2 | 1.653 | 41,7 | 1.450 | 40,6 |
| Berdin / Igual | 169 | 2,2 | 82 | 2,1 | 87 | 2,4 |
| **Guztira / Total** | **7.538** | **100,0** | **3.963** | **100,0** | **3.575** | **100,0** |

Aitortzailearen sexuaren arabera, emakumezkoen %56,2ak kuota osoa handiagoa izango du eta %41,7k txikiagoa. Gizonezkoen %57,0rentzat kuota osoa handitu egingo da eta %40,6arentzat jaitsi.

Según el sexo de la persona declarante, para el 56,2% de las mujeres la cuota íntegra aumentará y para el 41,75 disminuirá. Para el 57,0% de los hombres la cuota íntegra aumentará y para el 40,6% disminuirá.

Baina, nahiz eta kuota osoa jaisten zaien aitorpen kopurua nabarmena izan (%41,2), jaitsiera horren zenbatekoa oso txikia da: (156.436 euro, guztira). Sexuaren arabera, emakumezkoen jaitsiera 83.413 eurotakoa da, eta gizonezkoena 73.024 eurotakoa.

Pero, a pesar de que el número de declaraciones que ven reducida su cuota íntegra es significativa (41,2%), el importe de esa disminución es muy pequeño: 156.436 euros. Por sexo, la disminución de las mujeres es de 83.413 euros y la de los hombres de 73.024 euros.

**Tarifa berriaren eragina – zenbatekoak / Efecto de la nueva tarifa – importes**

| Kuota osoa / Cuota íntegra | Guztira Total | Emakumezkoak Mujeres | Gizonezkoak Hombres |
|---|---|---|---|
| Handiagoa / Mayor | 20.262.601 | 9.982.208 | 10.280.393 |
| Txikiagoa / Menor | -156.436 | -83.413 | -73.024 |
| Berdin / Igual | 0 | 0 | 0 |
| **Guztira / Total** | **20.106.165** | **9.898.796** | **10.207.369** |

Zenbatekoak eurotan / Importe en euros

## 2. PFEZrekin muga

PFEZ eta Ondarearen gaineko Zergaren artean ordaindu beharreko mugaren eragina aurreikusteko, oinarri gisa 2016ko PFEZko eta 2016ko ekitaldiko Aberastasunaren eta

## 2. Límite con el IRPF

Para la estimación del impacto del límite a pagar entre el IRPF y el Impuesto sobre el Patrimonio se han utilizado los datos de las declaraciones del IRPF del ejercicio

Fortuna Handien gaineko Zergako datuak erabili dira (biak ere 2017an egindako aitorpenak).

2016 y del Impuesto sobre la Riqueza y las Grandes Fortunas de 2016 (ambos presentadas en 2017).

Horrela, guztira 875 zergadunek aplikatzen dute muga hori, eta bere ondorioz, Ondarearen gaineko Zerga berriarengatik ordaindu beharreko zenbatekoa 33 milioi eurotan jaisten da.

Así, un total de 875 personas declarantes se aplican dicho límite y como consecuencia del mismo el importe a pagar por el nuevo Impuesto sobre el Patrimonio se ve reducido en 33 millones de euros.

**PFEZrekin muga – Soberakina / Límite con el IRPF - Exceso**

| | Kopurua Número | | Soberakina Exceso | |
|---|---|---|---|---|
| Emakumezkoak / Mujeres | 493 | 56,3% | 16.523.379 | 50,0% |
| Gizonezkoak / Hombres | 382 | 43,7% | 16.546.668 | 50,0% |
| **Guztira / Total** | **875** | **100,0%** | **33.070.047** | **100,0%** |

Zenbatekoak eurotan / Importe en euros

Muga aplikatzen duten zergadun guztietatik, %56,3 emakumezkoa da, baina zenbatekoan zertxobait gutxiago dira (%50,0).

Del total de personas declarantes que se aplican el límite, el 56,3% son mujeres, si bien en importe representan algo menos (50,0%).

### 3. Eragina guztira

### 3. Efecto total

Aztertutako bi neurri eragin bateratuaren ondorioz, aurreikusi da Ondarearen gaineko Zerga berriarengatik lortutako zerga-bilketa

Como consecuencia del efecto conjunto de las dos medidas analizadas se estima que la recaudación del nuevo Impuesto

12,9 milioi eurotan (-%20,1) jaitsiko dela.

sobre el Patrimonio se reduzca en 12,9 millones de euros (-20,1%).

**Eragina zerga-bilketan / Impacto recaudatorio**

| | Kopurua Número | | Ordaintzeko kuota originala Cuota a ingresar original | | Ordaintzeko kuota berria Nueva cuota a ingresar | | Aldea Diferencia | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Emakumezkoak / Mujeres | 3.963 | 52,6% | 31.999.837 | 49,7% | 25.375.254 | 49,4% | -6.624.583 | 51,1% |
| Gizonezkoak / Hombres | 3.575 | 47,4% | 32.381.517 | 50,3% | 26.042.218 | 50,6% | -6.339.299 | 48,9% |
| **Guztira / Total** | **7.538** | **100,0%** | **64.381.354** | **100,0%** | **51.417.471** | **100,0%** | **-12.963.882** | **100,0%** |

Zenbatekoak eurotan / Importe en euros

Emakumezkoak jaitsiera horren %51,1a eramaten dute (6,6 milioi euro gutxiago ordaintzera), eta gizonezkoak geratzen den %48,9a (6,3 milioi euro gutxiago ordaintzera).

Las mujeres se benefician del 51,1% de la bajada (6,6 millones de euros menos a pagar), y los hombres del 48,95 restante (6,3 millones de euros menos a pagar).

Emakumezkoentzat ordaintzeko kuotaren jaitsiera %20,7koa da, eta gizonezkoentzat zertxobait txikiagoa: %19,6. Baina bataz bestekoari begiratzen badiogu, emakumezkoak ordaindu beharrekoa 1.672 eurotan jaisten da, eta gizonezkoena pixka bat gehiago: 1.773 euro.

Para las mujeres el descenso de la cuota a ingresar es del 20,7%, y para los hombres algo menor: 19,6%. Pero si nos fijamos en los promedios, el importe a pagar por la mujeres baja en 1.672 euros, y el de los hombres algo más: 1.773 euros.

**Ordaintzeko bataz bestekoa / Importe medio a pagar**

| | Ordaintzeko kuota originala Cuota a ingresar original | Ordaintzeko kuota berria Nueva cuota a ingresar | Aldea Diferencia | |
|---|---|---|---|---|
| Emakumezkoak / Mujeres | 8.075 | 6.403 | -1.672 | -20,7% |
| Gizonezkoak / Hombres | 9.058 | 7.285 | -1.773 | -19,6% |
| **Guztira / Total** | **8.541** | **6.821** | **-1.720** | **-20,1%** |

Zenbatekoak eurotan / Importe en euros

Aztertutako bi neurriak direla-eta, zergadun guztien %48,0ak gehiago ordaindu beharko du, eta portzentaje zertxobait txikiagoarentzat (%49,8) ordaintzeko kuota jaitsi egingo da. Hori berbera gertatzen da emakumeetan eta aldea handiagoarekin (%46,9k gehiago ordaintzen du eta %51,0k gutxiago); gizonezkoetan, berriz, handiagoa da gehiago ordaintzen dutenen portzentajea (%49,2, %48,4ren aurka)

Como consecuencia de las dos medidas analizadas, el 48,0% del total de declarantes verán como aumenta el importe a pagar, mientras que para un porcentaje algo mayor (49,8%) disminuirá la cuota a ingresar. Eso mismo se repite para las mujeres y con mayor diferencia (46,9% paga más y 51,0% paga menos); mientras que en los hombres es mayor el porcentaje que paga más (49,2% contra un 48,4%).

**Eragina guztira – aitorpen kopurua / Efecto total – número de declaraciones**

| Ordaintzeko kuota / Cuota a ingresar | Guztira | | Emakumezkoak | | Gizonezkoak | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Total | | Mujeres | | Hombres | |
| Handiagoa / Mayor | 3.616 | 48,0 | 1.858 | 46,9 | 1.758 | 49,2 |
| Txikiagoa / Menor | 3.753 | 49,8 | 2.023 | 51,0 | 1.730 | 48,4 |
| Berdin / Igual | 169 | 2,2 | 82 | 2,1 | 87 | 2,4 |
| **Guztira / Total** | **7.538** | **100,0** | **3.963** | **100,0** | **3.575** | **100,0** |

Ordaintzeko kuotari dagokionez, igoera nabarituko duten 1.758 gizonezkoek, 3,1 milioi euro gehiago ordainduko dute; hau da, 1.777 euro bataz beste. Aldiz, gehiago ordainduko duten 1.858 emakumezkoek, 2,8 milioi euro gehiago ordainduko dute (bataz beste 1.514 euro gehiago).

Respecto al incremento de la cuota a ingresar, los 1.758 hombres que ven como aumenta, pagan más 3,1 millones de euros más; es decir, 1.777 euros más de media. Mientras que las 1.858 mujeres que pagan más, lo hacen en 2,8 millones de euros (1.514 euros más de media).

**Eragina guztira – zenbatekoak / Efecto total – importes**

| Ordaintzeko kuota / Cuota a ingresar | Guztira<br>Total | Emakumezkoak<br>Mujeres | Gizonezkoak<br>Hombres |
|---|---|---|---|
| Handiagoa / Mayor | 5.938.326 | 2.813.897 | 3.124.429 |
| Txikiagoa / Menor | -18.902.209 | -9.438.480 | -9.463.728 |
| Berdin / Igual | 0 | 0 | 0 |
| **Guztira / Total** | **-12.963.882** | **-6.624.583** | **-6.339.299** |

Zenbatekoak eurotan / Importe en euros

Bestalde, 1.730 gizonezkoek ordaintzeko kuota jaisten dela nabarituko dute, eta 9,5 milioi euro gutxiago ordainduko dute (5.470 euro gutxiago bataz beste). Eta 2.023 emakumeek 9,4 milioi euro gutxiago ordainduko dute (4.666 euro bataz beste).

Por su parte, los 1.730 hombres que verán reducida su cuota a ingresar, pagaran 9,5 millones de euros menos (5.470 euros menos de media). Y las 2.023 mujeres pagarán 9,4 millones de euros menos (4.666 euros menos de media).

### 3.2.3 Genero eraginaren balorazioa

### 3.2.3 Valoración del impacto de genero

2016ko Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zergaren hasierako egoerak erakusten du, nahiz eta aitorpen kopuruan emakumezkoak gizonezkoak baino gehiago (%52,6 eta %47,4), beraien pisua oinarri likidagarrian txikiagoa jaitsi egiten dela (%50,7), eta oraindik gehiago

La situación incial de las mujeres en el Impuesto sobre la Riqueza y las Grandes Fortunas de 2016 muestra que aunque en número de declaraciones representan algo más que los hombres (52,6% y 47,4%), su peso en la base liquidable baja (50,7%) y baja más todavia en la

jaisten da ordaintzeko kuotan (%49,7). Eta hori horrela da, gizonezkoek baino bataz besteko zenbateko txikiagoak aitortzen dituztelako.

cuota a ingresar (49,7%). Ello es debido a que declaran unos importes medios inferiores a los hombres.

Aztertutako bi neurrien datuak ikusita, emakumezkoak, arinki bada ere, gizonezkoek baino onura gehiago ateratzen dute. Izan ere, beraien ordaintzeko kuotaren pisua %49,7tik %49,4ra pasatzen da. Nahiz eta zerga hau progresiboa izanik, eta gizonezkoak zenbatekoa handiagoak aitortu, bataz bestekoetan gizonezkoen onura handiagoa izan.

A la vista de los datos de las dos medidas analizadas, las mujeres salen ligeramente beneficiadas respecto a los hombres, en el sentido de su peso en la cuota a pagar baja del 49,7% al 49,4%. Si bien y al ser un impuesto progresivo y declarar los hombres importes mayores, en los importes medios el beneficio de los hombres es mayor.

Dena den, komeni da aurreko baieztapena bere testuinguruan kokatzea. Horrela:

No obstante conviene contextualizar la afirmación anterior. En efecto:

- Ukitutako kolektiboa (ondare minimo jakin bat duten emakume eta gizonak), oso txikia da Gipuzkoako gizon eta emakume kopuru osoarekiko, eta, beraz, biztanlerian duen eragina ere oso txikia da.

- El colectivo afectado, mujeres y hombres con un patrimonio mínimo determinado, es muy pequeño en relación a la población gipuzkoana de hombres y mujeres y por tanto su impacto es también pequeño en el conjunto de la población.

- Foru arau honen xedea da Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatuko den ondarearen gaineko zerga berria onartzea, eta zerga hori beste lurralde historikoetan ondare metaketa kargatzen duten zergekin parekagarria izatea. Alde horretatik, zerga berria oso hurbil dago, bai egituran eta bai edukietan, beste lurralde historikoetan indarrean dagoen zergatik.

- Esta norma foral tiene por objeto el nuevo Impuesto sobre el Patrimonio que será de aplicación en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, equiparable a los impuestos que gravan la acumulación de patrimonio en el resto de Territorios Históricos. En este sentido, el nuevo impuesto se aproxima, tanto estructuralmente como a nivel de contenidos, al vigente en los otros Territorios Históricos.

- Aurtengo aldaketak, orain bi ekitaldi eginikoak osatzen dituzte (6/2015 Foru Araua, abenduaren 23koa, Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zergaren erreformari buruzkoa). Beraz bi urtetako aldaketak komeni da kontuan izatea.

- Estas modificaciones vienen a completar los cambios efectuados hace dos ejercicios (Norma Foral 6/2015, de 23 de diciembre, de reforma del Impuesto sobre la Riqueza y las Grandes Fortunas). Por tanto, conviene tener en cuenta los cambios de los dos ejercicios.

Azkenik, eta hizkuntzaren erabilera sexistari dagokionez, proiektuaren terminoak egokitu dira. Halere, eta

Finalmente y respecto al uso sexista del lenguaje, se ha procedido a adaptar los términos del proyecto, si

segurtasun juridikoa dela-eta, badira termino batzuk aldatu ez direnak, Ekonomi Ituanren 3. artikuluak ezarritako harmonizazio arauak direla-eta, Zergei buruzko Lege Orokorrak ezarritako terminologia eta kontzeptu berean errespetatu behar direnak.

bien, y por seguridad jurídica, no se han modificado aquellos términos que por las reglas de armonización establecidas en el artículo 3 del Concierto Económico, deben respetarse en la misma terminología y conceptos que los establecidos en la Ley General Tributaria.

Donostia, 2017ko azaroaren 9a

San Sebastián, a 9 de noviembre de 2017

**Sin/Fir.: Fir.: José Antonio Lapeira Oyarzabal**
**AZTERLANETAKO ATALBURUA /JEFE SECCIÓN DE ESTUDIOS**